

## GIG 22

## SAN TELMOKO DUPLEXA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,38

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

San Telmoko duplexa Itzurun hondartzako itsaslabarrean dago, eta Geoparkean ikusgai dauden egitura tektonikoen artean, nabarmenetako bat da. Elkarren artean lotutako faila batzuek zeharkatu egiten dituzte San Telmo ermitaren azpialdeko kareharri arrosakara daniarrak nahiz Itzurungo hego-mendebaldeko tupa selandiarrek; eta faila horiek duplex-motako egitura bat osatzen dute, oro har. Ura behe samarrean dagoenean eta hondartzan hondar gutxi dagoenean, duplexaren hiru dimentsioak ezin hobeto bereizten dira marearteko zabalguneari goitik begiratuz gero.

Faila nagusia ermitaren azpian dago, 50 m inguruko jauzia du, eta kareharri daniarren azken 20 metroen errepikapena eragin du, bai eta Daniarraren eta Selandiarraren arteko mugaren errepikapena ere. Gainerako failak 5 metrotik beherako jauziak dituzte. Faila horiekin lotuta, beste elementu batzuk ikus daitezke: narras-tolesak, desplazamendu txikiko zartadura txikiak eta egitura osoaren geometria eskala txikian erakusten duten duplexak. *A priori*, geruzen desplazamenduaren noranzkoari eta failen okerdurari erreparatuta, badirudi duplexa faila normal bat dela; baina aipatutako egitura txiki horiek eta multzoaren osaerak argi eta garbi adierazten dute duplexa konpresioz eratu zela, eta gero, baskulatua izan zela gainerako geruzekin batera.

Bestalde, zenbait aditu beste alderdi interesgarri bat aztertzen ari dira gaur egun: zer-nolako eragina izan zuen KT mugako buztinak egitura ikusgarri honen eraketan. Izan ere, buztina zizailatuta dago argi eta garbi, eta Paleozenoko kareharriak soil-soilik zeharkatzen dituzten zartadura batzuk buztinean eteten dira.

## NOLA BERTARATU

San Telmo ermitari eusten dion hormatzarraren azpialdean dago, Itzurun hondartzaren hego-mendebaldeko ertzean. Hondartzara jaitsi eta ezkererantz joan behar da oinez, ermitaren azpian dauden arrosa-koloreko hormatzarretaraino iritsi arte.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ.*

San Telmoko duplexa geruzen norabide desberditena antzeman daiteke.

**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 559952 m / Y= 4794316 m / Alt.= 9 m



San Telmo azpiko tolesa duplexaren sorrerarekin erlazionatuta dago.